

ANTZERKI-JAIA

Bilbao'ko Arriaga Teatroan

Barne-irrikari ezin eutsirik, Bilbon nintzan igandez, ilbeltzaren 26'an. Antzerki bat ematen zuten bertan, Teatro Arriaga'n, goizeko amaika ta erdietan. Garai ortan, ederki zegon jendez antzoki zabalak. Jendeak, berriz, bai sarrera-ateetan bai antzoki-barnean, euskeraz mintzatzen ziran barra-barra.

Baten orde, bi jai egin ziran. Bata: umetxoeri sariak eman. Bestea: Zubikarai paunaren *Seaska inguruan* antzeztu.

Lenengo zatirako, izan ere, oiala jaso zutenean, an agertu zitzaigun ume-talde galanta, urduri ta lirain. Sari-zai zeuden eta ezta arritzekoa. Irigoien ta Erkiaga euskaltzaindikoak ziran Orobi, Mungi, Laukiniz ta Bilbo'ko aurtxoeri zegozkien sariak banatu zizkietenak. Irurogeitik gora sarituak. Txalo ederrak ere artu zituzten, begirale guztiok gogoz emanda. Sariok, ostera, umeen artean nork obeto ipuiak esan eta kantak abestu, Euskaltzaindiak igazko bagillez eraturiko txapelketan irabaziak ziran.

Bigarren zatia antzerkia, Ondarru'ko euskal antzerki-talde txalotuak emana. Egia aitortzera ezker, gaur ez daukagu Euskalerrian, onenen artean ere, talde onek bezin egoki ta antzetsu jokatzeko duenik. Kantuz naiz ekinenez artista dira, nainun trebe ta garaille agertzeko aiñakoak.

Igandez Bilbon antzeztu zuten lana, leun, biozkor ta taiuz egiña dezute. Egileak, Zubikarai jaunak ba-daki nundik dabillan. Orobat, abeslarien buru dan Imanol apaizak; ba-du musika-sena ta gaztetasuna, ta biok alkartu ta eragiñik, lan ederra dagi Ondarru erti-zalean. Guztiontzat eredu ta jarraigarri noski, batez ere euskal teatrua gora altxa naiean ari geran garai onetan.

Zortzi sailtxo ditu *Seaska inguruan* lanak, Jesus Aurtxoaren jaiotza ta artzain-erregeen gurtza giltzarri ditularik; auen biran bai dabiltza beste gorabera ta zeatasun guztiak. Sail edo lauki (kuadro) bakoitzean, oiala jaso aurretik, antziñako igarle dirudian bertsolari batek aurrez esaten du, kantaka, egitera doazten laukiaren gaia. Oso zoragarri! Gisa ontako zeastasun batzuk dirala-ta, txit begiragarri ta goxo izan zitzaigun antzerki-au.

Onela, berriz, lauki bakoitzaren mami:

I. Barri on.

Gorri dagon antzeztoki barruan, goruetan ari dira Mari ta Simone. Urduri samar Mari, berriren bat somatzen baitu. Azkenez, aingeru bat agertzen zaio kantari. Jainko Aitak bere Semearen amatzat aukeratu du. Argi txinpartak. Mari'k baietza eman du: «Egin bekit zuk diozunez».

II. Zitalkeri txinpartak.

Oso poliki egiña. Katxingorri antzeko

taldea, ots, zazpi pekatu nagusien ezau-garriak. Bi ortzeko, sarde, akullu ta agakiekin batzarra dagite, Jesus jaio dala jaikin dutenean. Bakoitzak asmatu du nola zoztorrak bidean ipiñi, nola jendea ziria sartu: batak Heredos asaldatako du, besteak Judas diru-mindu, irugarrenak Pedro'ri tentelkeriak esan-erazi denak zer bait. An da alper ere, zaisaku eder: onek eztu ezer egingo.

III. Josepe'ren kezkek.

Jose arotza, bere lantegian; ba-du zeri oratu; baiña kezkatan bizi da-ta, aldrebes egiten gauzarik geienak, eskumatik bearrean; ezkerretik begiak leioari atera ta onakoak. Andra Mari'k zereduen diotsa, aren biotza poztu nairik, baiña ezin alkar ulertu. Azkenez, lo dago, aingeruak kanta: Jainkoaren lana da. Pozaren niriñir ezta.

IV. Aterpe billa.

Bakoitzak bere dun jatorrizko erriaren izena emateko agintzen du erromatar agintariak, zenbat menpeko ditun jakin nai duelako. Jose ta Mari Belen'era; aterpe billa dabiltza ara ta ona, baiña iñork ere ez ematen.

V. Gau poza.

Jesus jaio da. Poztu bite lurra! Artzaiak lo, baiña bertatik kezka ta ezinegona sortzen. Zer ote? Soiñuak goxoki. Aingeruak kantari! Gertatu danaren berri ematen dute. Artzaiak siñisgogor; baiña ez, egia da. Ta aien esana egiñik, Belen'era abiatzen dira, gazta, bildots, ille ta gaiñerakoak emaitzat arturik. Aien aztal-iskanbilla ta biotz-zauskada!

VI. Belen'go kaletan.

«Belen'go estalpean Jesus negarrez; Belen'go kaletan biotzak gorrez», kantatzen du iragarle bertsolariak. Ume itsua bere amarekin, oso lopiki. Biotz gogor bat, emakume ur pitxerduna: ez dio ume itsuari urik eman nai; onek ez du oraindik Jesu'k dakarren urik edan. Ordira, gero, dantzari taldeak, kantuz ta zaratatsu. Belen'era doaz danak.

VII. Erregeak datoz.

Urrutikoak ere, an eguzki aldean izar dizditsu bat ikusi dute; eta iru errege, iru izarlari azkar, beren arazo ta egikizunak utzirik, Belen'era urbilduz datoz. Ta auen atsegiña, Jesu aurkitzean!

VIII. Seaska inguruan.

Azkenik, denak daude seaska biran: Andra Mari, Aurtxoa besoetan duala; Josepe alboan, irriparrez; artzaiak, Aurtxoari agurka; iru erregeak beren esku-erakutsiak eskeiñiz; len itsu ta siñisgogor ziranak, begizabal ta siñestun. Denak, pozez gaiñezka egiñik!

Auxe dezute nik, lengo igandez, Bilbao'ko Arriaga antzokian ikusia.

Aita Onaindia

NAZIO-AR
MARXIST

Zero irriskor
sartzen naiz. Ba
rrik. Ez bai nato
nator inor epait
tera balzik.
Badra iru ed
tia'n, Paris'era
xista pentsame
nak, zoritxarre
ta estutasuna
ntzi astebe or
penstatu ta
bakarrik jarra

Era guztiet
ahartuta neu
egunerarte. T
tu zait. Zer
dagokionez F
dako artikul
ko. Henri L
pentsalari b
erakusle dar
tik partidut

Astebete
itu zituzten
tek (bere
kin) parte
tria esan er
dio Henri
Johny Ha
bezela jenu
lotzen du
esaterakoa

ZI

Isusmintsu
tan. Ang
tzen zai
auek Ke
dute pil
ba-du n
llen Joa
rrak ask
lakoan
diranar
Kenned
ne'k. E
diJoaze
kelin'i

Kennedy
zutene
reun r
Auek
batzue
Orain
zaku.

Gu
zastu
trat
apar
Lend

erako ditu.
ngo da.
ko Euskal-
k 27.

TURISMO
URTEKO
AN OGEL-
—FIESTA
UTAKO
D IPUI—

ka-mutikok

rtzi, urtetik
utiko en ar-

maika urte-
tean jokatu-
n urtean be-

aldu diteke,
bear du.

K, beren ipui
koa, ta geie-
r dute.

K, gutxienez
ez lau orrial-
iak, alde be-
rrora bi tarte

iak bitez, ta
dira, Donos-
TA JOAN—

alako CEN-
TURISMO-
gerbide one-
EUSKERAZ-
KO». Orrez

goan, aur ere,
ritza jarriko

o azkenengo
ren 8'garren
urrera, ez da

orraren, arra-
ostia'ko Erri-
tu bear dute,
dieraziko dira

k.

ARI, iru sari
lek, irabazleen

AGIRIAK eta
ALO ederrak

7 eta 1964'ko

raz

lianteak ba-dira